



Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2012ko abenduaren 13ko bilerako ondorio nagusien sintesia:

- **Honako puntuen berri eman da:** Udalsarea 21 saria; Hondakinak Prebenitzeko Aste Europarra; Etxe Berdeak; Etxeko olio biltzeko sentsibilizazio kanpaina ikastetxeetan; Koopera Reusing Center hondakinak kudeatzeko instalaziora bisita; Mugikortasunari dagokion diru-laguntza eskakizuna EVeri; Ekintza Planen Berrikuspenen luzapena; Emisio fokuen inbentarioa.
- **Jasangarritasun irizpideen arabeko eskualdeko erosketa eta kontratazio zerbitzuari dagokion lehiaketa:** Moragues and Scade Asociados (MAS Abogados) empresari egokitu zaion behin-behineko esleipenaren berri eman da, diru kopurua 8.660 eurokoa (BEZ kanpo) izanik.
- **Arropa eta beste etxe-objetu batzuk jasotzeko zerbitzua:** eskualdeko kontratura Arriagorriagako Udala ere gehitzea onartu da, honekin batera 2012ko abenduari dagokion 722,54 euroko kuota pasatuko zaiola.
- **ISO 14064 lantaldea:** parte hartuko duten enpresak hurrengoak dira: Galletas Artiach (Orozko) Maxam (Galdakao); Arcelormittal (Etxebarri); Gerdau (Basauri); Gerdau (Azkoitia); Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal (Arrankudiaga). Datorren abenduaren 19an, taldeko lehen saioa burutuko da. ATTEST ITC asistentzia teknikoaren eskaintza onartu da, 20.715 euroko (BEZ barne) kopuruarekin.
- **Eskualdeko Ekintza Plana:** Hurrengo batzorde bileran balioztatuko da.
- **2013ko Kudeaketa Plana:** Hurrengo batzorde bileran erabakiko da bere onarpena.
- **Batzordearen hurrengo bilera:** Otsailaren 7an, 9:00etatik 12:00etara.